

Mikroplastikoen euria euri azidoa baino larriagoa izan liteke

Euritan atmosferako mikroplastikoak isurtzen dira etengabe, [Science aldizkarian argitaratutako ikerketa baten arabera](#). AEBko mendebaldeko parke nazional babestuetan urtero 1.000 tona metriko mikroplastiko baino gehiago isurtzen direla kalkulatu dute; 120 milioi plastikozko botilaren pareko kantitatea. Datu hori AEBko azalaren % 6ri baino ez dagokiola gogorazi dute ikertzaileek, arazoaren magnitudeaz ohartarazteko.

Ikerketaren arabera, jasotako euri-laginen % 98k zituen mikroplastiko-partikulak. Partikula atmosferiko guztietatik % 4 ziren polimero sintetikoak. Gehienak poliester-arropek garbigailuan askatzen dituzten mikrozuntzak izaten direla adierazi dute Utah-ko Unibertsitateko ikertzaileek.

Mikroplastiko-laginak jasotzeaz gain, ekaitz bakoitzaren jatorria ere aztertu dute: zer hiritatik pasa diren ekaitzak, ura isuri aurretik. Badirudi haizeak lurzoruko mikroplastiko-partikulak erauzi eta atmosferan garraiatzen dituela. Hala, ekaitzen ibilbidea aztertu eta mapa batean islatu dute nola garraiatzen dituzten partikulak sistema meteorologikoek. Mikroplastikoak haize-korrente altuetara iristen direla ikusi dute; horrek azalduko luke partikula plastikoak urrutira iritsi eta nola ari diren kutsatzen orain arte garbitzat jotzen ziren habitatak. Oso gertu dugu horren adibide bat: Europako hiriak mikroplastikoz betetzen ari dira Artikoa.

Ikerketaren egileek kezka adierazi dute, mikroplastikoak nanoplastiko bihurtuz doazen heinean oso zaila izango baita haiek detektatzea. Oraingoan, ez



ARG.: Pixabay.

dute lortu lau mikrometrotik beherako partikularik detektatzea, baina horrek ez du esan nahi arnasten ari ez garenik.

Euri plastikoa euri azidoa bera baino arazo larriagoa izan litekeela ohartarazi dute ikertzaileek. Izan ere, euri azidoa sufre dioxidoa eta nitrogeno oxidoaren ondorio da, eta horiek neurri batean murriztea lortu da. Baina askoz ere zailagoa ikusten dute uretik, lurretik eta airetik mikroplastikoak eta nanoplastikoak garbitzea. ●



**Albiste gehiago,
webgunean**